


Basque children ez ahazteko



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bilbo, 1937ko maiatzaren 21a. *Habana* lurruntzia portutik irten zen, haurrez beteta, Ingalaterrara bidetan. 800 bat bidaiarientzako tokia zeukan itsasontzian 3.840 haur, 80 irakasle, 120 laguntzaile, 15 apaiz katoliko eta 2 mediku pilatu ziren. Itsasaldi biziak are gogorragoa egin zuen bi eguneko bidaia.

Eusko Jaurlaritzak haurrei babesa emateko eskaera egin arren, hasieran britainiar gobernuak ezetz esan zuen, gatazkan esku ez hartzeko politika aitzaki. Katharine Stewart-Murray Atholkeko dukesaren eta beste eragile batzuen kanpainari esker, gobernuak azkenean haurrak lehorreratzea onartu zuen, baina berriro ere esku ez hartzeko hitzarmenari helduta, haurren egonaldia ez zuela finantzatzeko adierazi zuen. Basque Children's Committee (Euskal Haurren Batzorde) sortu berriak haur bakoitza zaintzeko asteko 10 libra lortu beharko zituen.

Baporea maiatzaren 23an iritsi zen Southamptonera. Portuan jendetza zegoen haien zain eta gainera hiriko kaleak banderatzoz eta apaingarriz bete zituzten harrera egiteko. Edo hori pentsatu zuten haur gehienek; berez, Jurgi VI.a erregea 10 egun lehenago koroatu zuten eta haren omenezko apaingarri gehienak oraindik jaso gabe zituzten.

Ia 4.000 haurrak Eastleighera eraman zituzten, boluntarioek bi astetan, presa eta ahalegin handia eginez, prestatu



HABANA ONTZIKO HAURRAK NAHIZ BOLUNTARIOAK EASTLEIGHKO ESPARRUAN, 1937KO UDAN.

zuten esparrura. Haur gehienak ez ziren luze egon bertan. Udan zehar, pixkanaka, Erresuma Batu osoko "kolonia" eta etxetan banatu zituzten. Irailaren erdialdean Eastleighen ez zen euskal haurrik gertzen, talde erlijiosoen, sindikatuen eta beste talde eta norbanakoen emandako laguntzari esker.

Ordurako, Iberiar penintsula iparraldeko gune nagusiak frankisten esku zeuden eta haurrak Euskal Herrira itzultzeko prozesua abiatu zen. 1939an, Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, 400 euskal haur besteirik ez ziren geratzen Erresuma Batuan. 16 urtez gorakoei itzultzeko edo gertzeko aukera eman zitzaion. Txikiagoek ezin izan zuten erabaki; gurasoak hilda edo giltzapean zeudelako geratu behar izan zuten han. 1945ean 250 bat ziren eta gehienak bizi osorako geratu ziren bertan.

2002an, *Habana*-ko haur horietako baten bilobak, Natalia Benjaminek, The

Association for the UK Basque Children edo BCA'37 UK erakundea sortu zuen, oraindik bizirik zegoen haur horietako baten laguntzaz: Helvecia Aldasoro. Elkartek *Habana*-ko euskal haurren berri zabaltzea du helburu, batez ere hezkuntzan. Ildo horretan, iazko udan *The Basque Children of '37* izenburuko erakusketa jarri zuen abian, The Museum of Childhood Ireland proiektuarekin batera. Erakusketa Europako Batzordean egon zen ikusgai uztailen; abuztuaren Corkera eraman zuten eta gero Galway, Sligo, Leitrim, Derry, Belfast, Warrenpoint, Drogheda eta Irlandako beste hainbat herritan ibiliko da datozen uztaila bitartean.

Helvecia Aldasoro 2014an hil zen Nottinghamen, 91 urte zituela, berari eta *Habana*-ko beste ia 4.000 haurrei gertatutakoa ez zela galduko ziurtatuta. ●



STANFORD UNIVERSITY

Erromatar inperioko nabigatzailea

Stanford unibertsitateko Walter Scheidel eta Elijah Meeks-ek Orbis jarri dute abian (orbis.stanford.edu), Erromatar Inperioko multimedia atlas bat hainbat punturen arteko distantzia eta denbora kalkulatzeko duena; antzinaroko Google Maps modukoa, alegia. Urte sasoia, biderik merkeena, laburrena eta azkarrena edo garraibideak hautatzeko aukera ematen du. Pompaletik Erromara

joateko, adibidez, 23 egun beharko genituzke aukera merkeena hartuta eta pertsonako 768 denario ordainduko genituzke, gurdian bidaiatzeko; gari kilo bakoitza garraiatzeko, aldiz, 12 denario eta erdi ordainduko genituzke. Iruñetik abiatu eta itsasontzirik hartu bahiko ez bagenu, aldiz, bidaia asko luzatu eta garestituko zen: 54 egun eta erdi, eta 2.134 denario. ●